

# KOKAINE

## IDEIAREN NONDIK NORAKOAK

### 1. LEHEN FASEA

#### 1) PRODUKTUA, ZEIN DA?

Chicagoko Unibertsitateak aurrera darama ikerketa bat non kokainaren efektua deuzestatzen duten zelula-ama batzuk (genetikoki aldatuak, hasierakoak baina 44.000 aldiz indartsuagoak direnak) garatzen ari diren.

Zelula hauek saguetan soilik probatu dira eta efektu sekundarioak badituzten ala ez ikertzen ari dira. Gizakietan funtzionatu ezker, 30 urteetako kokainaren aurkako txertu moduko bat da, adiktuen nahia eta kokainaren efektuak murrizten dituenak.

Beraz, proiektu honen helburua zelula horiek gizakietan probatzea, merkatura ateratzea, publizitatea prestatzea eta enpresa baten beste alderdi guztiak prestatu eta aztertzea da.

#### 2) ENPRESAK JARRAITUKO DUEN ESTRATEGIA

Ikerketa lana egin duen taldeak egingo ditu gizakietan probak. Beraien produktua gizakietan baliagarria eta bideragarria dela ziurtatzean, gure enpresa izango da Espainira (LEHENENGO EUSKAL HERRIRA OSAKIDETZA BIDEZ ETA ONARPENA BADU ESPAINIRA OSORA) ekartzeko arduraduna. Gure lana izango da osakidetza eta gobernuarekin harremanetan jartzea, publizitatea antolatzea, inguruaren analisisa egitea, etab.

Gizakietan erabiltzea EZ bada bideragarria, gure enpresak finantziazioa bilatzeko lana hartuko du, *Crowdfunding* bidez eta gobernuaren laguntza bilatzen. Helburua ikerketa taldea laguntzea da, publikoaren onarpena dutela jakinaraztea eta diru-laguntzak ematea langile edo instalazio gehiago behar badituzte.

Gobernuarekin hitz egin behar da, finantziazioa eta onarpenaren bila. Gainera, farmako enpresa batekin harremanetan jarri behar dugu, produktua ekoitz dezaten.

Hurrengo pausua zer pazientetan erabiliko den erabakitzea da, farmakoaren ardura gabeko gehiegizko erabilera saihesteko. Hala ere, galdera horren erantzuna gobernuak eman beharko luke, eta guk negoziaketa horretan parte hartuko dugu.

Azkenekoz, gobernuko osasun departamentuaren laguntzaz produktua kaleratuko dugu, publizitatea eginez bai anbulategietan, telebistetan, etab. Horrez gain, intoxikazio zentroetan hitzaldiak ematera joango gara enpresako partaideak eta baita ikerketa taldekoak, galderei erantzuteko eta produktua azaltzeko.

Amaitzeko, lortutako finantziazioarekin inbestigazio ugari zabaltzea da helburua, alkohola, heroina eta beste substantzia batzuen aurkako entzimak garatzeko intentzioarekin (eta berriz ere hau dena errepikatzea). Ikerketa berrien arduradunak lehenbiziko produktuaren ikerketa taldea izango dira.

### 3) INGURUNEAREN AZTERKETA

LOKALAREN KOKAPENA:

Cofradia de Arriaga Kalea, 1

01012 Vitoria-Gasteiz

Araba



Inguruan lehia ez dago, produktu pionero bat delako.

Hasiera batean lokala administrazioa lana egiteko leku bat izango da, baina erakusleihoan informazioa jarriko dugu, baita jendearen galderak erantzun eta aurpegiz-aurpegi informatu. Bestalde, liburuxkak banatuko ditugu informazioa azalduz, baita hitzarmenak egin euskal herriko liburutegietan, herrietako festen hasieran, ambulategietan eta ospitaleetan, etab.

<https://goo.gl/maps/yKre7gnYjx42>

#### 4) LEHIA EGOERA

BARNE-ANALISIA	INDARRAK	AHULEZIAK
	-Hasiera batean helburua diru laguntzekin funtzionatzea denez, ez dago irabaziak lortzeko presarik.	-Bezero posible gutxi. -Hasi barriak gara. -Bolondresak behar ditugu.
KANPO-ANALISIA	AUKERAK	MEHATXUAK
	-Posizionamendu estrategikoak. -Antzeko beste enpresarik ez dago. -Espainia biztanle kopurua kontuan izanda munduko gehien kontsumitzen duen 3. herrialdea da.	-Ez lortzea autofinantzaketari esker funtzionatzea. -Ez da segurua aurrera ateratzea.

#### 5) Forma juridikoa

Irabazi-asmorik gabeko elkarteak izango litzateke. Hasiera batean proiektuak gobernuaren diru laguntzei esker funtzionatuko luke proiektuak. Aurrera egin ahala helburua ikertutako sendagai berrien salmentari esker finantzatzea da helburua, baina beti ere irabaziak izateko helbururik gabe.

## 2. BIGARREN FASEA

### 1) Barne Antolaketa

PLANIFIKAZIOA: Leire

ANTOLAKETA: Alejandro

KUDEAKETA: Axier

KONTROL: Joseba

→ Gizakietan probak arrakasta:

Leire Nazabal: Ikerketa taldearekin harremanak eta negoziazio buru.

Axier Divas son: Bezeroekin tratu pertsonala lokalean eta kontabilitatea.

Josseba Lassa: Osakidetza, gobernu eta farmako enpresarekin harremanak eta antolaketa.

Alejandro Pérez: Finantziario bilketa, hitzaldiak antolatu eta marketing burua eta lokala garbitu.

Denon betebeharrak: Hitzaldiak eman, besteen lana ezagutu eta laguntzen saiatu.

→ Gizakietan probak huts eginez gero:

Leire Nazabal: Bidaiak egin produktuaren potentziala ezagutzera emateko.

Axier Divasson: Herriz herriko galdeketak egin, produktuak edukiko zuen efektua berrikusteko.

Joseba Lasa: Galdetegiaren erantzunekin eta produktuaren potentziala erabiliz, gobernuarekin (osakidetza, enpresa pribatuak...) harremanetan jarri finantziarioaren bila.

Alejandro Pérez: Kontabilitatea eta ikerketa taldearekin harremanak. Hitzaldiak antolatuta udaletxeekin akordatur.

## 2) Marketing:

Panfletuak egingo ditugu eta haietan era askotako informazioa jarriko dugu.

Poster-ak kaleetan eta dendetako ateetan etab. itsatsiko ditugu, panfletoen antzekoak baina mota ugari, bakoitza gai bat lantzen (bankuetako poster-ak eredu).

Bulegoaren erakuslehoetan Poster bereziak.

Web Orria: Informazio guzti-guztia. Datu zehatzekin eta hitzaldien ordutegia, kontaktu telefono zenbakiak eta emaila.

Hitzaldiak herriz herri.

Opari merkeak produktua promozionatzen.

(Galdetegiaren emaitza laburtuak, produktua nork garatzen duen, gure enpresaren helburua, gure bulegoa eta kontaktu zenbakiak, emailak...)